

Boterearen mistika

Antton Izagirre

Eliza katolikoa, mende honetan izan duen eskandalu larrienak bultzatuta, Elizaren instituzioaren sistemaren barruan adingabeei egin zaizkien sexu abusuarekin erabat lokaztuta, Vatikanoko goi bilera egitera behartua izan da. Elizaren sinesgarritasuna galbidean jarri duen gaiari nolabaiteko erantzuna eman izanak, Elizaren irudia berregiteko balio izan leza ke epe motzean, baina bada gaiaren beste irakurketa sakonago bat egin beharra aldarrikatu duenik; hau da, gertaturikoa, Elizaren botere sistemak berak eraginda koaren ondorioa dela.

Edozein sistema hierarkiko itxitan gertatzen dena behar bezala ulertzeko, argi-

garria gerta dakiguke Abner Cohenek boterearen ezarpenari buruz egiten duen analisisa. Haren iritziko, eliteek, talde interesa, interes partikularra edo boterea ezartzeko mistifikazio eta sinbolismoa erabiltzen dituzte haien hegemonia edo nagusitasuna lortzeko teknika modura. Hark dio, boterearen gurtza elite taldeon kultura osoan txertatua, barneratua dagoela, eta gizarte osoaren on beharrez ari direla sinistaraztera irits daitezkeela.

Eliza katolikoak ere sistema hierarkikoa du, itxia, ezkutukoa, barne arau propioak dituen, eta boterearen mistikaz baliatzen da, duen botereaz baliatzeko. Horri lotua, gizarte osoak dituen arauetatik kanpo, sexu erlazioari buruzko

arau propioak ezartzen ditu, zelibatu behartua, bulkada sexualaren ukapena, eta, guztiaren gainetik, gizonkrazia. Askoren ustez, botere sistema horren guztiaren atzean dago pederastiaren funtsa.

Eztabaida azalean eman ordez, Eliza katolikoa sustraia jotzera behartua egon beharko litzateke, mundutarragoa egitera; behingoz, gizartean sexu harreman mota desberdinak normalizatzen ari diren moduan, Eliza Katolikoak ere barne sisteman dituen kontraesan horiek guztiak naturaltasunez aitortu beharko lituzke. Gainontzean arazoari adakia jarriko diote, baina bere barnean iraungo du arazoak, haratustel modura, gerora ere. •

Lapurtuak bai, baina ez ahaztuak

Miren Azkarate
Badiola

Nire lanbideak istorio zoragarri eta gogorrek ezagutzera eramaten nau. Irratirako dudak elkarriketa saio batek duela egun batzuk horietako momentu bat oparitu dit, inoiz ahaztuko ez dudak elkarriketa, beste hainbat gairen artean gai bat jorratu izanagatik espresuki. Ume lapurtuak. Elkarriketatuen osaba izango zenaren historia kontatu zidan, hasieratik bukaerara. Nola bere aitona-amonak Iparraldera eta gero Landetara alde egin zuten Frankismo ga-

raian. Nola bere ama eta beste bi anaia bertako ospitale batean jaioak ziren eta nola haietako bat jaio eta hiru egunetara gaixotu eta hil egin zela esan zieten bertako mediku eta apaizek. Nola ez zuten bertsio ofiziala sinistu eta pena horrekin bizi izan diren urte hauetan. Eta nola amona hil baina lehenago senide lapurtuaren bilaketan ari diren, esperantza galdu gabe zantzu guztien arabera bizirik dagoelako.

Istorioak hasieran pixka bat harritu ninduen, gertaerak ez zirelako espainiar

Estatuan gertatu eta ordura arte nik bertako kasuak bakarrik entzun nituelako. Baina zergatik ez? Frankismoaren tentakuluak luzeak direla badakigu. Eta duda guztiak argitu zitzaizkidan elkarriketa hartan kontatu zidanean bertan lan egiten zuten mojak espainiarrak zirela eta ospitale haren ondoko herri batean guardia zibilak eta haien senideek udako oporrak igarotzen zituzten leku bat zegoela. Hortxe tentakulua!

Frankismoak utzitako beste ondorio ilun bat, noizbait argitu beharrekoa. •